Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko maiatzaren 21a, asteazkena — 94 — Miércoles, a 21 de mayo de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ASTIGARRAGAKO UDALA

**Berdintasuna, Bizikidetza eta Partaidetza Saila**

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu Batzarrak –788/2023 bidez alkateak eskuordetuta–, 2025eko maiatzaren 6an egindako bilkuran, jarraian adierazitako bekaren oinarriak onartzea eta deialdia egitea erabaki du:

*Astigarragako emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko, balioan jartzeko eta herritarren eskura jartzeko genero ikuspegidun ikerketa-beka.*

Astigarragako Udalak Emakume eta Gizonezkoen berdintasunaren aldeko konpromisoa hartua du eta, hori dela eta, Astigarragako emakumeek historian izandako ekarpenak ezagutzeko, berreskuratzeko eta ikustarazteko bidean aurrera egitea sustatu nahi da ikerketa-beka honen bidez.

Ildo horretatik, Astigarragako emakumeen historia ezagutu nahi da, berreskuratuz eta ezagutzera emanaz herriko bizitza kultural, sozial, ekonomiko eta politikoan egin dioten ekarpena. 2020. urtean sortu zen bekaren lehenengo edizioa, zeinari esker XX. eta XXI. mendeetako emakumeen gorputz praktiken inguruko ezagutzak areagotu, eta zabaldu ahal izan diren. Bigarren deialdian aztertu nahi izan zen zer-nolako papera izan zuten (historikoki zein gaur egunera begira) emakumeek Astigarragako komertzio txikian, merkaturatze zirkuitu laburretan eta lehenengo sektoreko produktuen salerosketan. Deialdi horretan ez genuen beka-eskaerarik jaso. 2023. urtean izan zen bekaren hirugarren edizioa eta bertan Astigarragako hainbat emakume erreferenteen ikerketa gauzatu zen.

Laugarren deialdi honetan, ikerketa-esparrua irekia izatea nahi dugu eta eskatzaileak erabaki dezala ikerlanaren gaia, betiere bekaren xedearen markoan.

Lan-prozesuak ondorengo oinarriak jarraitu behar ditu:

### OINARRIAK

*1. artikulua. Xedea.*

Deialdiaren helburua «Astigarragako emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak lanean, bizitza sozial, ekonomiko, politiko zein kultur mailan» ikertzea da.

Bekaren helburua ikerlana burutzea eta herritarren artean zabaltzea da, Astigarragako emakumeek, kolektibo gisa, herriari egindako ekarpenak jaso, landu eta herritarren eskura jartzeko helburua duen genero ikuspegidun ikerketa-beka.

*2. artikulua. Ikerketaren iraupena.*

Ikerketaren iraupena, gehienez ere 18 hilabetekoa izango da, onuradunak beka onartu izanaren agiria aurkezten duenetik. Nolanahi ere, beste 3 hilabetez luza daiteke epaimahaiak hala irizten badio.

## AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

**Departamento de Igualdad, Convivencia y Participación**

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local –por delegación del alcalde, realizada por Decreto 788/2023– en la sesión celebrada el 6 de mayo de 2025, ha acordado aprobar las bases y realizar la convocatoria de la siguiente beca:

*Beca de investigación con perspectiva de género para recuperar, poner en valor y a disposición de la ciudadanía la memoria histórica de las mujeres de Astigarraga.*

El Ayuntamiento de Astigarraga tiene un compromiso en la defensa de la igualdad entre mujeres y hombres, por ello, esta beca de investigación pretende ser un paso más en dar a conocer, recuperar y poner de manifiesto las contribuciones de las mujeres de Astigarraga a lo largo de la historia.

En este sentido, pretende conocer la historia de las mujeres de Astigarraga, recuperando y dando a conocer su contribución a la vida cultural, económica y política del municipio. La primera edición de la beca se creó en 2020, gracias a la cual se han podido ampliar y profundizar los conocimientos sobre las prácticas corporales de las mujeres en los siglos XX. y XXI. En la segunda convocatoria se quiso analizar el papel que han desempeñado las mujeres (tanto históricamente como hoy en día) en el pequeño comercio de Astigarraga, en los circuitos cortos de comercialización y en la compraventa de productos del primer sector. En esa convocatoria no hubo ninguna solicitud de beca. En la tercera edición, publicada en 2023, se investigaron diversas mujeres referentes de Astigarraga.

En esta cuarta convocatoria, el ámbito de investigación será abierto y la persona solicitante decidirá el tema de investigación, siempre y cuando se respete el marco del objeto de la beca.

El proceso de trabajo se basará en:

### BASES

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de esta convocatoria es investigar «las aportaciones que a nivel histórico hayan realizado las mujeres de Astigarraga al municipio en el ámbito laboral, de la vida social, económico, político y cultural».

El objetivo de la beca es realizar la investigación y difundirla entre la ciudadanía; se trata de una beca con perspectiva de género que pretende recopilar y poner a disposición de la ciudadanía las aportaciones que las mujeres de Astigarraga como colectivo han realizado al municipio.

*Artículo 2. Duración de la investigación.*

La investigación tendrá una duración máxima de 18 meses desde la fecha en la que la persona beneficiaria presenta el documento que acredita la aceptación de la beca concedida. De todos modos, la duración podrá alargarse otros 3 meses, si el jurado así lo establece.

EK\CV GAO-I-2025-03483

*3. artikulua. Zenbatekoa.*

Beka guztira hamabost mila eurokoa (15.000 €) da eta Udal aurrekontuetako honako kontu sailetik bideratuko da: 1 1000. 481.01.327.12 2025 (4275).

Diru horri dagozkion atxikipenak egin beharko zaizkio, PFEZaren gaineko arauek jartzen dutena aintzakotzat hartuta, eta bidezko diren gainerako zergak ere kendu behar dira.

Ikerketan zehar sor daitezkeen gastu guztiak bekaren onuradun(ar)en kontura izango dira.

*4. artikulua. Azken produktua.*

Beka onartu izanaren agiria aurkezten denetik, 12 hilabeteko epean, ikerketaren emaitzak jasoko dituen idatzizko txostena aurkeztu beharko da epaimahaiaren aurrean.

Epaimahaiaren onespena jasota, bekaren onuradunek 6 hilabeteko epea izango dute lana aurkezten denetik, zabalkunde programa garatzeko. Edozein euskarri mota erabili ahal izango da lana herritarren artean zabaldu ahal izateko: bideoa, laburpen liburuxka, erakusketa, hitzaldiak... egileak zehaztuko du hasierako proposamenean, eta epaimahaikideekin kontrastatuko da.

Zabalkunde programa garatzeko gastuak bekadunak edo bekadunek hartuko dituzte bere gain.

Astigarrako Udalaren esku dago aurkeztutako lanak osorik edo zati batean argitaratzeko edo aurkeztutako proiektuak oinarri hauen baldintzak beteko ez balira beka eman gabe uztea ere.

Udalak ikerlana egiteko beharrezko materiala eta informazioa eskuratzeko bideak erraztuko dizkio bekadunari edo bekadunei.

*5. artikulua. Onuradunak.*

Beka norbanakoek zein horretarako osatutako taldeek jaso ahal izango dute. Norbanakoak 18 urtetik gorako herritarrak izan beharko dira. Pertsona fisikoen taldeak nortasun juridikorik gabekoak izango dira eta ikerlanaren arduradun edo ordezkari bat izendatu beharko du, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalmena nahikoa izango duena.

Deialdi honetara aurkezteko ezinbestekoa izango da unibertsitate mailako tituluduna izatea eta Zerga eta Gizarte Segurantzaren obligazioak zein Udalarekiko ordainketak egunean edukitzea. Taldeen kasuan, gutxienez taldekideen % 50ak izan beharko du unibertsitate mailako titulua.

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, eta Astigarragako Udaleko dirulaguntzak emateko ordenantzan ezarritako gainerako baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek.

Sexu-bereizkeria dela eta bazterkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten pertsonek ezingo dute deialdi honetan parte hartu, zigorrak ezartzen duen epean. Ezin izango dute parte hartu, orobat, Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan xedatutakoari jarraiki debeku horrekin zehatutakoek.

*6. artikulua. Agiriak aurkezteko lekua eta epea.*

Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea 2025eko uztailaren 18 artekoa izango da.

*Artículo 3. Importe.*

La beca asciende a la cantidad de quince mil euros (15.000 €) para la que contará con la siguiente partida del presupuesto del Ayuntamiento habilitada al efecto: 1 1000.481.01.327.12 2025 (4275).

Dicho importe estará sujeto a las retenciones que procedan, de conformidad con lo establecido en la normativa reguladora de IRPF, así como el resto de impuestos que corresponda.

Todos los gastos que pueda originar la investigación, serán por cuenta de la persona o personas adjudicatarias.

*Artículo 4. Producto final.*

En un periodo máximo de 12 meses, a contar desde la fecha de presentación del documento que acredite la aceptación de la beca concedida, se presentará ante el jurado el trabajo realizado, recogiendo las principales conclusiones.

Tras la aprobación del tribunal, las beneficiarias de la beca contarán con 6 meses para el desarrollo del programa de difusión. Para ello, se podrá utilizar cualquier tipo de medio: videos, exposiciones, folletos, charlas... Las personas beneficiarias concretarán el medio de difusión en la propuesta inicial, y se contrastará con el tribunal.

Los gastos para el desarrollo del programa de difusión serán asumidos por las personas beneficiarias de la beca.

El Ayuntamiento de Astigarraga se reserva la potestad de publicar en su totalidad o en parte los proyectos presentados, así como de no conceder la beca en caso de que los proyectos no se adecuen a las especificaciones de estas bases.

El Ayuntamiento facilitará a la persona o personas beneficiarias tanto el acceso a la información como el material necesario.

*Artículo 5. Personas beneficiarias.*

Se puede optar a la beca individualmente o en grupo (que ha sido creado específicamente con este fin). Podrán optar a la beca las personas mayores de 18 años. Los grupos de personas físicas no dispondrán de carácter jurídico y deberán nombrar a una persona responsable de la dirección o representante de la investigación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que como persona beneficiaria, correspondan al grupo.

Para poder acceder a la beca es imprescindible tener alguna titulación universitaria y tener al día las obligaciones tributarias, obligaciones con respecto a la Seguridad Social y al Ayuntamiento. En el caso de los grupos de trabajo, por lo menos el 50 % de las personas integrantes deberán tener alguna titulación universitaria.

En todo caso, para ser considerado beneficiaria, las personas solicitantes deberán cumplir el resto de requisitos establecidos en los artículos 13 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006, así como en la ordenanza de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga.

No podrán concurrir a esta convocatoria las personas sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni las incursas en prohibición legal que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21.bis.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Artículo 6. Plazo y lugar de presentación de la documentación.*

El plazo para presentar las solicitudes y demás documentación será hasta el 18 de julio de 2025.

EK\CV GAO-I-2025-03483

Eskaerak eta gainontzeko agiriak Astigarragako Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira edo Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako eran (16.4 art.).

Eskatzaileak edo eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioak akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunei 10 eguneko epea emango zaio informazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko (39/2015 Legearen 68.1 art.). Epea igarota, horrelakorik egin ezean, eskariari uko egin zaiola ulertuko da, betiere 39/2015 Legearen 93 eta 94 artikuluetan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren. Ebazpen hori alkatearen dekretuz hartuko da.

*7. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

a) Eskaera-orria (E086 zenbakia duena): bertan eskaera nork bere izenean egiten duen edo talde baten izenean egiten duen zehaztu behar da. Eskatzailea bakarra bada, haren datu pertsonalak zehaztu beharko dira (izen-abizenak, helbidea, harremanetan jartzeko telefonoak eta helbide elektronikoa). Eskaera talde baten izenean egiten bada, eskaera bakarrean aurkeztuko da dokumentazio guztia eta taldeko kideek E086 eskaera-orri bana bete beharko dute norkbere datu pertsonalak eta taldeko ordezkaria zehaztuz.

b) Nortasun-agiriaren kopia (eskatzailearena edo taldeen kasuan, eskatzailearena eta taldekide guztiena).

c) Udalak, eskatzaileak horretarako baimena emanez gero, Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez honakoak egiaztatuko ditu:

— Foru Ogasuna - Zerga-betebeharrak ordainduta izatea.

— Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean izatea.

Udalarekiko ordainketak egunean edukitzea eta Astigarragan erroldatuta egotea ofizioz egiaztatuko dira. Eskatzailea datu horiek edo Nisae bidezko datuak erabiltzearen aurka agertzen bada, hala adierazi beharko du eskabide-orrian, eta dagozkion dokumentuak entregatu beharko ditu. Taldeen kasuan, aurkakotasuna adierazi nahi duen taldekide bakoitzak sinatu beharko du eskabide-orrian dagokion atala, eta dagozkion dokumentuak aurkeztu.

d) Kontu korrontearen titularitatea ziurtatzeko banketxe edo aurrezki kutxaren agiria (eskatzailearena edo taldeen kasuan, eskatzailearena eta taldekide guztiena).

e) Curriculuma, egindako ikasketa eta ikerketak zehaztuta (bakoitzaren orduak islatzen), tituluen eta lan-eskarmentuaren egiaztagiriekin. Lantaldeen kasuan partaide guztienak.

f) Proiektu-proposamena jasotzen duen txostena, 15-20 orrialde artekoa, proiektuko. Hautagai bakoitzak proiektu bat edo gehiago proposatzeko aukera izango du, baina gehienez hiru lan ildo aurkeztuko ditu. Proiektu-proposamenak ondorengo atalak izango ditu:

* A. atala: Ikerlana.

— Lanaren ikerketa-esparrua.

— Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera.

— Ikerketaren helburuak.

— Materiala eta lan-metodologia.

— Lan plangintza eta kronograma.

— Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.

Las solicitudes y demás documentación deben entregarse en el registro del Ayuntamiento de Astigarraga o en los términos establecidos en la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (art. 16.4).

Si se advierte que la documentación presentada por alguna persona solicitante adolece de defectos o está incompleta, tendrá el plazo de 10 días para completar la información o subsanar los defectos pertinentes (Ley 39/2015, art. 68.1). Transcurrido dicho plazo, si no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en los artículos 93 y 94 de la Ley 39/2015. Esta resolución se adoptará por decreto de alcaldía.

*Artículo 7. Documentación requerida.*

a) Instancia de solicitud de la beca (número E086): especificando si la solicitud se realiza de forma individual o en nombre de un grupo. Si la solicitante es una única persona física, deberán especificarse sus datos personales (nombre y apellidos, dirección, teléfono de contacto y dirección de correo electrónico). En el caso de que la solicitud se realice a nombre de un grupo, la documentación se presentará en una única solicitud y cada persona integrante del grupo deberá cumplimentar una hoja de solicitud E086 especificando sus datos personales y la persona representante del grupo.

b) Copia del documento de identidad (de la persona solicitante o en el caso de los grupos, de la solicitante y de las integrantes del grupo).

c) El Ayuntamiento, previa autorización del solicitante, comprobará a través del nodo de interoperabilidad Nisae:

— Hacienda Foral - Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias.

— Tesorería General de la Seguridad Social - Estar al corriente en las obligaciones de pago a la Seguridad Social.

La actualización de los pagos municipales y el empadronamiento en Astigarraga se comprobarán de oficio. En el caso de que la persona solicitante se oponga a la utilización de estos datos o los datos cuya consulta prevé realizarse mediante Nisae, deberá hacerlo constar en la hoja de solicitud y entregar la documentación correspondiente. En el caso de los grupos, cada persona integrante del grupo que quiera manifestar su oposición deberá firmar el apartado correspondiente en la hoja de solicitud y presentar la documentación correspondiente.

d) Certificado para verificar la titularidad de la cuenta corriente del banco o caja de ahorros (de la persona solicitante o en el caso de los grupos, de la solicitante y de las integrantes del grupo).

e) Currículum, detallando estudios e investigaciones realizadas (con detalle de las horas de cada una), incluyendo certificados acreditativos de títulos y experiencia laboral. En el caso de grupos, la documentación relativa a todas las personas integrantes del mismo.

f) Informe con la propuesta del proyecto, de entre 15 y 20 páginas por proyecto. Cada solicitante podrá proponer uno o varios proyectos, pero como máximo relativo a tres líneas de trabajo. La propuesta de proyecto contendrá los siguientes apartados:

* Apartado A: Investigación.

— Área en la que se adscribe la investigación.

— Antecedentes y estado actual del tema.

— Objetivos de la investigación.

— Material y metodología de trabajo.

— Plan de trabajo y cronograma.

— Resultados previstos e interés de los mismos.

EK\CV GAO-I-2025-03483

— Lanaren xedearen betetze-aurreikuspena.

— Ikerketa egiteko beste finantza-biderik jasoko ez den zinpeko idatzia.

* B. atala: Zabalkundea.

— Zabalkunde programa.

— Ekintza-plana eta kronograma.

— Euskarriak eta baliabideak.

Ikerketa-proposamenak jatorrizkoak edo argitara eman gabeak izango dira, hau da, ez da inolako lan akademiko, tesi, tesina, ikaslan edota txostenaren parte izango: ez osotasunean, ez atalka ez eta laburpenik ere.

Astigarragako Udalak beka eskatzaileei aipaturiko gaien gaineko informazio osagarria eskatu ahal izango die.

Izaera pertsonaleko datuak babestu eta erabiliko dira arlo horretako araudiak eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 15.4 artikuluari jarraiki.

*8. artikulua. Hautagaiak baloratzeko irizpideak.*

Beka-deialdira aurkeztu litezkeen hautagaitzak 0tik 100 puntura bitartean baloratuko dira, ondoren adierazten den arabera:

a) Eskatzailearen edo eskatzaileen curriculuma: gehienez 20 puntu.

* Ibilbide akademikoa: gehienez 8 puntu.

— Ikerketari loturiko gaietan formazio espezifikoa:

≡ 50 ordu arteko ikastaro bakoitzeko: 0,3 puntu.

≡ 150 ordu arteko ikastaro bakoitzeko: 0,6 puntu.

≡ 150 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko: 1 puntu.

≡ Unibertsitateko masterra: 2 puntu.

≡ Doktoretza: 3 puntu.

— Feminismoari loturiko gaietan formazio espezifikoa:

≡ 50 ordu arteko ikastaro bakoitzeko: 0,3 puntu.

≡ 150 ordu arteko ikastaro bakoitzeko: 0,6 puntu.

≡ 150 ordutik gorako ikastaro bakoitzeko: 1 puntu.

≡ Unibertsitateko masterra: 2 puntu.

≡ Doktoretza: 3 puntu.

* Ibilbide profesionala: 0,5 puntu, urteko. Gehienez 8 puntu.

— Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin loturiko lanbideetan erakunde publiko edo pribatu batean eginiko ibilbidea.

— Ikerketan erakunde publiko edo pribatuan eginiko ibilbidea.

— Beste ikerketa-beka batzuk egin izana.

* Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean lan egiten duten elkarte edo eragileekin edota mugimendu feministan duten ibilbidea: 0,5 puntu, urteko. Gehienez 4 puntu.

b) Ikerketa-proposamenaren egokitasuna: gehienez 50 puntu.

— Ikerketa-proposamenaren interesa, zuzentasun eta balio zientifikoa eta originaltasuna: gehienez 20 puntu.

— Ikerketa-proposamenaren argitasuna eta bideragarritasuna, metodologia eta kronograma sartuta: gehienez 20 puntu.

— Ikerketa lana testuinguruan kokatzea eta Astigarragako udalerriaren ezagutza egitasmoan islatzea: gehienez 10 puntu.

— Previsión de cumplimiento del objeto de trabajo.

— Declaración jurada de que no se recibirá ninguna otra vía de financiación para la misma.

* Apartado B: Difusión.

— Programa para la difusión.

— Plan de acción y cronograma.

— Medios y recursos.

Las propuestas de investigación serán originales y sin previa publicación, es decir, no se podrá presentar ni en parte ni en su totalidad, ni resumido ningún trabajo académico, tesis, tesina o informe realizado con anterioridad.

El Ayuntamiento de Astigarraga podrá solicitar información complementaria sobre los temas mencionados a las personas solicitantes.

La protección y tratamiento de los datos de carácter personal se realizará conforme a la normativa vigente en la materia y al artículo 15.4 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

*Artículo 8. Criterios de valoración de las personas candidatas.*

Las personas candidatas que puedan presentarse a la convocatoria de la beca serán puntuadas de 0 a 100 siguiendo los criterios que se señalan a continuación:

a) Currículum de la o las personas solicitantes: 20 puntos máximo.

* Recorrido académico: 8 puntos máximo.

— Formación específica en investigación:

≡ Por cada curso hasta 50 horas: 0,3 puntos.

≡ Por cada curso hasta 150 horas: 0,6 puntos.

≡ Por cada curso de más de 150 horas: 1 punto.

≡ Máster universitario: 2 puntos.

≡ Doctorado: 3 puntos.

— Formación específica en feminismo:

≡ Por cada curso hasta 50 horas: 0,3 puntos.

≡ Por cada curso hasta 150 horas: 0,6 puntos.

≡ Por cada curso de más de 150 horas: 1 punto.

≡ Máster universitario: 2 puntos.

≡ Doctorado: 3 puntos.

* Recorrido profesional: 0,5 puntos por año. 8 puntos máximo.

— En profesiones relacionadas con la igualdad entre mujeres y hombres en organismos públicos o entidades privadas.

— En investigación en organismos públicos o entidades privadas.

— Haber realizado otras becas.

* Recorrido en asociaciones o entidades ligadas al ámbito de la igualdad entre mujeres y hombres y/o en el ámbito de los movimientos feministas: 0,5 puntos por año. 4 puntos máximo.

b) Idoneidad de la propuesta de investigación: 50 puntos máximo.

— El interés, la corrección, el valor científico y originalidad de la propuesta de investigación: 20 puntos máximo.

— Claridad y viabilidad de la propuesta, incluyendo metodología y cronograma: 20 puntos máximo.

— Contextualización y conocimiento del municipio de Astigarraga plasmado en la propuesta: 10 puntos máximo.

EK\CV GAO-I-2025-03483

c) Zabalkunde-proposamenaren egokitasuna: gehienez 20 puntu.

— Zabalkunde-proposamenaren interesa eta originaltasuna: gehienez 10 puntu.

— Argitasuna, egokitasuna eta bideragarritasuna: gehienez 10 puntu.

— Ikerketa proposamenaren egokitasuna eta zabalkunde proposamenaren egokitasuna izeneko atalen batura 40 puntura iristen ez diren proposamenak, baztertu egingo dira.

d) Ikerlaria edo ikertzaile taldearen % 51 emakumezkoa izatea: 5 puntu.

e) Ikerlaria edo ikertzaile taldearen % 51 Astigarragan erroldatuta egotea: 5 puntu.

*9. artikulua. Ebazpena.*

Proposamenak epaimahai batek ebaluatuko ditu eta lehenengo hiru lanen zerrenda egingo du. Beka Astigarragako Tokiko Gobernu Batzordeak ebatziko du epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Erabakiaren berri aurkeztu diren guztiei emango zaie.

Proposamen-aukeraketa egingo da epaimahaiak egindako merezimendu-lehiaketaren puntu-banaketaren emaitza oinarritzat hartuta.

Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

a) Epaimahaiburua (boto bat emateko eskubidearekin): Astigarragako Udaleko Berdintasun teknikaria.

b) Mahaikideak (kideko boto bana emateko eskubidearekin):

— Astigarragako Emakumeon Etxeko bi bazkide.

— Astigarragako Emakumeon Etxeko dinamizatzailea.

— Historia, antropologia edo soziologia gaietan eta ikasketa feminista eta generokoak arloan aditu bat.

c) Idazkaria (boto eskubiderik gabe): Astigarragako Udaleko Euskara eta Hezkuntza teknikaria.

Era berean, epaimahaiak eska dezake aditu baten laguntza eta aholkularitza.

Beka eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, epaimahaiak informazio osagarria eska diezaioke. Eskatzaileek halakorik onartuko ez balute edota adierazitako merituak egiaztatuko ez balituzte, deialditik kanpo geldituko dira.

Gainera, epaimahaiak aurkeztutako lanen kalitate teknikoa nahikoa ez dela erabakiko balu, beka-deialdia bertan behera uzteko proposamena egin dezake. Era berean, aurkeztutako proiektuak oinarri hauen baldintzak beteko ez balitu beka eman gabe uztea erabaki dezake Udalak.

*10. artikulua. Bekadunen betebeharrak.*

a) Beka eman zaiola edo zaiela jakinarazi eta ondorengo 10 egun naturaletan, Udalari helaraziko dizkio(te) beka eman baino lehen curriculumean adierazitako merituen egiaztagiriak eta beka onartzen du (t)ela dioen agiria sinatuta.

b) Bekaren helburuei lotutako lan-programa garatzea eta lanaren garapenari buruzko jarraipen-txostena aurkeztu beharko dute beka onartu eta 6 hilabetera. Epaimahaiak jarraipen-txostena baloratuko du eta alkateari epaimahaiaren proposamena helaraziko dio. Astigarragako Udalak dekretuz onetsi beharko ditu egindako lanak eta lortutako emaitzak.

c) Bekaren onuradunak edo onuradunek une oro bermatu beharko dute herritarrek proiektuan parte hartzen dutenean (galdetegiak, elkarrizketak...) nahi duten hizkuntza ofiziala askatasunez aukeratu ahal izango dutela.

c) Idoneidad de la propuesta de difusión: 20 puntos máximo.

— Interés y originalidad de la propuesta: 10 puntos máximo.

— Claridad, adecuación y viabilidad de la propuesta: 10 puntos máximo.

— Aquellas propuestas que no alcancen los 40 puntos de la suma de los apartados de idoneidad de la propuesta de investigación e idoneidad de la propuesta de difusión, serán rechazadas.

d) La investigadora sea mujer o que al menos el 51 % de las integrantes del grupo sean mujeres: 5 puntos.

e) La persona investigadora esté empadronada en Astigarraga o que al menos el 51 % de las personas integrantes del grupo estén empadronadas en Astigarraga: 5 puntos.

*Artículo 9. Resolución.*

El jurado realizará una lista de las tres mejores propuestas seleccionados. La beca será adjudicada por la Junta de Gobierno Local de Astigarraga, una vez recibida la propuesta del jurado. Se notificará la resolución a las personas candidatas.

La elección de la propuesta se realizará en función de la puntuación otorgada por el jurado en la fase de concurso.

El jurado estará formado por:

a) Presidencia (con derecho a un voto): Técnica de Igualdad del Ayuntamiento de Astigarraga.

b) Resto de integrantes (con derecho a un voto por integrante):

— Dos socias de la Casa de las Mujeres de Astigarraga.

— La dinamizadora de la Casa de las Mujeres de Astigarraga.

— Persona experta en el ámbito de la historia, antropología o sociología y estudios feministas y de género.

c) Secretario (sin derecho a voto): Técnico de Euskera y Educación del Ayuntamiento de Astigarraga.

Del mismo modo, el jurado podrá solicitar ayuda y asesoramiento de una persona experta.

Una vez el jurado haya examinado la documentación presentada, se podrá solicitar información adicional a la o las personas solicitantes de la beca. Si no se admitiera la petición y/o no se acreditaran los méritos por los que se pregunta, quedará fuera de la convocatoria.

De todos modos, si el jurado decidiera que la calidad de los trabajos presentados no es suficiente, se podrá proponer la suspensión de la convocatoria de la beca. Así mismo, el Ayuntamiento podrá no conceder la beca en caso de que los proyectos no se adecuen a las especificaciones de estas bases.

*Artículo 10. Obligaciones de las personas becarias.*

a) Antes de otorgar la beca la persona o personas becarias tendrán que ratificar los méritos especificados en el currículum y firmar la aceptación de la plaza, diez días naturales después de haberles notificado que se les concede subvención.

b) Desarrollar el programa de trabajo previsto ateniéndose a la finalidad de la beca, además de presentar un informe sobre el desarrollo del trabajo a los 6 meses de la aceptación de la beca. El jurado valorará el informe sobre el desarrollo del trabajo y hará una propuesta a alcaldía. El Ayuntamiento de Astigarraga, mediante decreto, deberá dar su conformidad o visto bueno con respecto al trabajo realizado y los resultados obtenidos.

c) La o las personas beneficiarias de la beca deberán garantizar en todo momento que en la participación ciudadana (cuestionarios, entrevistas...), se pueda elegir libremente el idioma oficial en el que se quieran relacionar.

EK\CV GAO-I-2025-03483

d) Beka onartu eta 12 hilabetera emaitzen txostena edo memoria (ikerlanaren azken erredakzioa) aurkeztea, euskarri informatikoan Libre Office formatuan. Bigarren ordainketa egin ahal izateko Astigarragako Udalak onetsi egin beharko du txostena. Horretarako onuradunek ikerketa-lana aurkeztuko dute epaimahaiaren aurrean eta epaimahaiak balorazio-proposamena helaraziko dio alkateari. Astigarragako Udalak dekretuz onetsi beharko ditu egindako lanak eta lortutako emaitzak.

Testigantzen grabazioak ere aurkeztu beharko dira AVI, MPEDG edo MOV formatuetan eta baita testigantza horien transkripzioak ere. Beste edonolako multimedia euskarriak atxikituko badira, irudiak, aparteko fitxeroan eman beharko dira, ahal den erresoluzio handienean, argitalpena ahalik eta kalitate onenean egin ahal izateko.

e) Lanek bi hizkuntza ofizialetan egon behar dute. Beka jaso duenak edo dutenek bi hizkuntzetako batean txostenak idazteko maila nahikoa ez badu(te), itzultzailearen zerbitzua erabiltzeko eskatu ahal izango dio edo die Udalak, eta gastua beka jaso duen pertson(ar)en gain geratuko da.

f) Dokumentazio osoan hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu beharko da; irudiak edo materialak emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestu eta berdintasun baliokideko irudia, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rolen aniztasuna eta ez estereotipatua erakutsi beharko dute.

g) Astigarragako Udalak egindako lanak eta lortutako emaitzak onetsita, bekaren onuradunek ikerlanaren azken erredakzioa aurkeztu dutenetik 6 hilabeteko epea izango dute zabalkunde programa garatzeko. Zabalkunde programa amaitu eta hilabeteko epean honen ondorioen gaineko txostena entregatu beharko dute. Epaimahaiak gauzatutako zabalkunde programa eta ondorioen txostena baloratuko du eta alkateari epaimahaiaren proposamena helaraziko dio. Astigarragako Udalak dekretuz onetsi beharko du burututako zabalkundea. Hirugarren ordainketa gauzatu ahal izateko Astigarragako Udalaren onespena beharko da.

h) Ikerlanaren azken erredakzioa entregatzeko, zabalkundea gauzatzeko edo zabalkundearen ondorioen gaineko txostena entregatzeko epeak justifikaziorik edo gainditu ezinezko arrazoirik gabe betetzen ez badira, zigorra ezarriko da. Astigarragako Udalak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez. Bekaren kopuruaren % 10 gutxitu ahal izango zaio, hilabeteko atzerapen bakoitzeko.

i) Onuraduna pertsona fisikoen taldea bada, talde hori ezingo da desegin, 38/2003 Legearen 39 eta 65. artikuluetan aurreikusten den preskripzio epea gainditzen den arte.

*11. artikulua. Ordainketak.*

Ordainketak honela egingo dira:

— Onuradunak edo onuradunek beka onartzean, kopuru osoaren % 40a beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.

— Kopuru osoaren % 40a, beka onartu eta 12 hilabetetara, ikerketa-lanaren emaitza epaimahaiaren aurrean aurkeztu, epaimahaiak alkateari aldeko proposamena egin eta dekretuz onartu ondoren.

— Gainerako % 20a prozesuaren bukaeran, zabalkunde programa gauzatu, zabalkundearen txostena aurkeztu eta Astigarragako Udalak onetsi ondoren.

d) Transcurridos 12 meses desde la aceptación de la beca, se presentará la consiguiente memoria (texto final del trabajo de investigación) en soporte informático en formato Libre Office. Para proceder al segundo pago el Ayuntamiento de Astigarraga deberá aceptar y dar el visto bueno al texto final del trabajo. Para ello las personas beneficiarias deberán presentar la investigación realizada ante el jurado y el jurado hará una propuesta de valoración a alcaldía. El Ayuntamiento de Astigarraga, mediante decreto aceptará y dará el visto bueno al trabajo realizado y los resultados obtenidos.

La grabación de los testimonios deberá ser entregada en formato AVI, MPEG o MOV, así como las transcripciones de dichos testimonios. Si se adjuntaran otro tipo de fuentes multimedia, las imágenes deberán entregarse en un fichero aparte, con la mayor resolución posible para que la calidad de la publicación sea alta.

e) Los trabajos deberán estar en los dos idiomas oficiales. Si la o las personas perceptoras de la beca no disponen del nivel necesario para realizar el informe en uno de los dos idiomas, el Ayuntamiento podrá solicitarle que haga uso de un servicio de traducción, y el gasto correrá a cuenta de la persona perceptora.

f) Toda la documentación, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje; evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, responsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género y no estereotipados.

g) Tras la aprobación del Ayuntamiento de Astigarraga del trabajo realizado y los resultados obtenidos, las beneficiarias de la beca para el desarrollo del programa de difusión contarán con 6 meses desde la presentación del texto final del trabajo de investigación. Una vez terminado el programa de difusión, en un plazo de un mes, deberán entregar un informe que recoja las principales conclusiones del programa de difusión. El jurado valorará el programa de difusión ejecutado y el informe con las conclusiones y hará una propuesta a alcaldía. El Ayuntamiento de Astigarraga, mediante decreto aceptará y dará visto bueno de la difusión realizada. Para realizarse el tercer pago es necesario el visto bueno del Ayuntamiento de Astigarraga.

h) La o las personas becarias serán penalizadas si no se entrega en el plazo previsto o no se justifica debidamente el retraso en la entrega del trabajo de investigación, la ejecución del programa de difusión o la entrega del informe que recoja las principales conclusiones del programa de difusión. El ayuntamiento de Astigarraga decidirá si las razones argumentadas son o no suficientes. Por cada mes de retraso en la entrega, se le reducirá un 10 % del montante de la beca.

i) Si la persona beneficiaria es un grupo de personas físicas, no podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de la Ley 38/2003.

*Artículo 11. Pagos.*

Los pagos se realizarán de la siguiente manera.

— El 40 % de la cantidad total de la subvención en el momento de entrega de la beca, cuando la o las personas beneficiaras aceptan la beca, a modo de pago anticipado.

— El 40 % de la cantidad total se pagará transcurridos 12 meses desde la aceptación de la beca por parte de las personas beneficiarias, tras presentar las conclusiones de la investigación ante el jurado, realizar una propuesta favorable del jurado a alcaldía y aceptarse mediante decreto.

— El restante 20 % se pagará al final del proceso, tras realizarse el programa de difusión, entregarse el informe sobre las principales conclusiones del programa de difusión y haber dado su aprobación el Ayuntamiento de Astigarraga.

EK\CV GAO-I-2025-03483

*12. artikulua. Ez betetzea eta dirua itzultzea.*

Astigarragako Udaleko dirulaguntzak emateko erregelamenduan xedatutakoari jarraiki, bekadunak edo bekadunek lana bukatuko ez balu(te) edota deialdi honetan ezarritako eskakizunak, aplika daitezkeen gainerako arauak edo dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez betetze espedientea ireki, eta dirulaguntza ezeztatu eta itzuli egin beharko dira, legezko korrituekin batera. Kasu horietan, ikerlanak eragin dituen gastuak bekadun(ar)en kontura izango dira.

Ez betetze espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta hala dagokionean, emandako dirulaguntzaren zati bat edo bere osotasuna itzularazteko ebazpenak, laguntza onartu duen organoak du.

*13. artikulua. Aurkeztutako lanen jabetza.*

Deialdi honetan diruz lagundutako ikerlanaren jabea Astigarragako Udala da. Ondorioz, Administrazioak beretzat gordeko ditu lanaren jatorrizko formatua eta hura zabaltzeko, erakusteko edo ustiatzeko nahi adina aldiz kopiatzeko ahalmena. Hain zuzen ere, hauexek dira Administrazioaren jabetza intelektualaren eskubideak: sortutako obra kopiatzeko, banatzeko, jendaurrean emateko eta eraldatzeko eskubideak, eta ustiapen ekonomikoa eragin dezaketen gainerako guztiak. Jabego horren eskubide guztiak modu esklusiboan eskuratu ditu Astigarragako Udalak, egungo ustiapen edota euskarri-mota guztiak barne direla eta lurralde eremua mundu osoa dela, hau da, munduko herrialde guzti-guztiak.

Onuradunek eta ikerketan hartzen duten pertsonek ezin izango dute erabili beren onurarako diruz lagundutako ikerlan honen emaitza, ez hirugarrenei haren zatirik, filiaziorik, testurik, marrazkirik ez argazkirik eman, ez eta haren edukirik, osorik zein partzialki, argitaratu, Astigarragako Udalak berariazko baimena idatziz eman ezean. Kasu guztietan onuradunek edukiko dute betebehar horiek ez betetzeak eragiten dituen kalte-galeren erantzukizuna.

Udalak deialdi honetan diruz lagundutako ikerketa lana argitaratzeko ardura hartuko du.

*14. artikulua. Oinarrien interpretazioa.*

Epaimahaiak ahalmena du deialdiaren oinarrietan arautzen ez diren xehetasunen inguruko erabakiak hartzeko eta oinarriak interpretatzeko.

*15. artikulua. Araubide juridikoa.*

Oinarri hauetan arautu gabekoei, lege eta arautegi hauek ezarriko zaizkie:

— 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura.

— 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzkoa, eta 887/2006 Errege Dekretua, lege horren arautegia onartzen duena.

— Astigarragako Udaleko dirulaguntzak emateko araudia (www.astigarraga.eus webgunean eskuragarri).

— Diru-laguntzen Plan Estrategikoa (2020-2023) (www.astigarraga.eus webgunean eskuragarri).

Astigarraga, 2025eko maiatzaren 6a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (3483)

*Artículo 12. Incumplimiento y reintegro.*

Según lo dispuesto en el reglamento de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga, si la o las personas becarias no terminaran el trabajo de investigación, incumpliesen cualquiera de los requisitos establecidos en la presente convocatoria, las demás normas aplicables o las condiciones impuestas en la resolución de concesión de la subvención, procederá la incoación del expediente de incumplimiento y la revocación y reintegro de la subvención, así como los intereses legales. En esos casos, así mismo, los gastos derivados del trabajo de investigación correrán a cargo de la o las personas becarias.

La competencia para incoar y resolver los expedientes de incumplimiento, así como, en su caso, las resoluciones de reintegro parcial o total de la subvención concedida corresponde al órgano concedente.

*Artículo 13. Propiedad de los trabajos presentados.*

Queda en manos del Ayuntamiento el trabajo de investigación subvencionado mediante beca. La Administración se reserva el formato original de la obra y la facultad de reproducirla tantas veces como se desee para su difusión, exhibición o explotación. Son derechos de propiedad intelectual de la Administración los de reproducción, distribución, información pública y transformación de la obra producida, así como todos aquellos otros que puedan dar lugar a su explotación económica. Todos los derechos de esta propiedad han sido adquiridos de forma exclusiva por el Ayuntamiento de Astigarraga, incluyendo todo tipo de explotaciones y/o soportes existentes, y que el ámbito territorial es el mundo entero, es decir, todos y cada uno de los países del mundo.

Las personas beneficiarias de la beca y las participantes en la investigación no podrán utilizar en beneficio propio el resultado de este estudio, ni facilitar a terceras personas partes, filiaciones, textos, dibujos, fotografías, ni publicar total o parcialmente su contenido, salvo autorización expresa por escrito del Ayuntamiento de Astigarraga. En todo caso, las beneficiarias responderán de los daños y perjuicios que ocasione el incumplimiento de estas obligaciones.

El Ayuntamiento asume la responsabilidad de publicar o divulgar el trabajo de investigación subvencionado mediante esta beca.

*Artículo 14. Interpretación de las bases.*

El tribunal tiene potestad para decidir sobre detalles no recogidos en las bases de la convocatoria y para interpretar las bases.

*Artículo 15. Régimen jurídico.*

En todo lo no previsto en estas bases, se aplicará las siguientes leyes y reglamentos:

— Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— Ley 38/2003 General de Subvenciones y Real Decreto 887/2006, por el que se aprueba el Reglamento de dicha Ley.

— Ordenanza reguladora del otorgamiento de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarrga (disponible en la web www.astigarraga.eus).

— Plan Estratégico de Subvenciones (2020-2023) (disponible en la web www.astigarraga.eus).

Astigarraga, a 6 de mayo de 2025.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (3483)

EK\CV GAO-I-2025-03483